

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

**242/2026 Erabakia, apirilaren 21ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea toki erakundeentzako dirulaguntzen deialdiari, alokairu sozial edo babesturako eta gazteen emantzipaziorako etxebizitzak eskuratu eta birgaitzeko**

Azken urteotan etxebizitzaren prezioetan izan den gorakadaren eragile nagusia izan da merkaturako eskariaren igoera portzentuala eskaintzarena baino handiagoa izan dela. Hala gertatu da bai alokairuen merkaturak, bai etxebizitza erosteko merkaturak. Prezio indize handiago horrek zaildu egiten die herritar batzuei bati etxebizitza eskuratzea, besteak beste, gazteei eta errenta gutxi eta aurrezteko gaitasun txikia dutenei. Beraz, fenomeno honek modu asimetrikoan eragiten dio gizarteari.

Arabako Foru Aldundiak 2025eko abenduan egindako azken azterlan demoskopikoaren arabera etxebizitza da Arabako herritarren kezka nagusia. Pertzepzio horrek, edozein azterketa soziologikori datxekion osagai subjektiboaz gain, etxebizitza merkaturako prezioen igoeran du oinarria.

Erakunde publikoek etxebizitzaren arloan esku hartzeko justifikazio nagusietako bat prezioen politika antiziklikoak egitea da. Horretarako, funtsezkoa da etxebizitza publikoen stock esanguratsua sortzea, bai jabetza erregimenean (adibidez, azalera eskubide batena), bai, batez ere, alokairu erregimenean (etxebizitzak zein zuzkidura biziokiak). Azken aukera hori eraginkorragoa da prezioei eusteko etxebizitza merkaturaren testuinguru inflazionistetan, txandaketa periodo txikiagoa dutelako.

Horrenbestez, dirulaguntza hauen helburua da Arabako udalerrri txiki eta ertainetako etxebizitza eskaintza handitzea; horretarako, etxebizitzak eskuratzeko eta birgaitzeko dirulaguntzak emango dira, gero etxebizitza horiek alokairu sozial edo babesturako erabiltzeko. Ikuspegi ekonomikotik, etxebizitzarako irispidean eragin positibo handiena duten neurrien artean alokairu publikoa dago; izan ere, aipatu den bezala, erabilgarri dauden etxebizitzaren kopurua handituta eta alokairuaren prezioa murriztuta, eskaintza handitu egiten da.

Horrela, Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 31ko 12/2026 Foru Dekretuaren bidez Lurralde Oreekaren Saileko zuzendaritzak toki erakundeei alokairu sozial eta/edo babesturako eta gazteen emantzipaziorako etxebizitzak erosteko eta birgaitzeko emango dizkien dirulaguntzen oinarri arautzaile orokorrak onetsi ziren.

Oinarriak idazteko, kontuan hartu zen Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen testu bategina onesten duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak ezarritako arau esparrua.

Halaber, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen 11/2016 Foru Arauaren 7.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, oinarri arautzaileetan kontuan hartu zen euskararen erabilaren faktorea, Arabako Foru Aldundiak onetsitako hizkuntza normalizazioko politikaren esparruan, eta Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen arabera.

Horregatik, Lurralde Oreekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau,

## ERABAKITZEN DA

Lehenengoa. Onestea Lurralde Orekaren Zuzendaritzak toki erakundeei alokairu sozial eta/edo babesturako eta gazteen emantzipaziorako etxebizitzak erosteko eta birgaitzeko emango dizkien dirulaguntzen deialdia.

Deialdia espedienteari lotuta dago eta erabaki honen I. eranskinean jasotzen da.

Deialdi honetan Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 31ko 12/2026 Foru Dekretuaren bidez onetsitako oinarri arautzaileak eta erabaki honen II-VI bitarteko eranskinetan jasotako landa biztanleguneen zehaztapena aplikatuko dira.

Bigarrena. Dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2026. urterako aurrekontuaren kontura emango dira, partiden eta urteko kuoten banaketa honen arabera:

LERROA	PARTIDA	2026	2027	2028
Etxebizitza eskuratzea	10202. G/920102/76290115 Etxebizitza eskubidearen aldeko ltuna	1.000.000,00		
Etxebizitza zaharberritzea	10202. G/920102/76290115 Etxebizitza eskubidearen aldeko ltuna	2.000.000,00	1.000.000,00	1.000.000,00
Gazteen emantzipazioa	10202. G/920102/76290115 Etxebizitza eskubidearen aldeko ltuna	500.000,00	250.000,00	250.000,00

Deialdiko laguntza lerroetako batean soberakinik izanez gero, beste lerroa handitu ahal izango da ekitaldi berean.

Hirugarrena. Dirulaguntzen plan estrategikoa aldatzea erabaki honen VII. eranskineko informazioaren arabera.

Laugarrena. Foru erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Bosgarrena. Erabaki hau behin betikoa da bide administratiboan, eta beraren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian administrazio egintza hau argitaratu eta hurrengo egunetik bi hilabete pasatu baino lehen, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, jurisdikzio hori arautzen duenak, 46. artikuluan xedatzen duenarekin bat etorriz. Hala ere, nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio egintza eman duen organoari administrazio egintza hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hilabete pasatu baino lehen.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko apirilaren 21a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatua*

**LAURA PÉREZ BORINAGA**

*Lurralde Orekaren zuzendaria*

**JAVIER GORBEÑA GARCÍA**

## I. ERANSKINA

### **Toki erakundeei alokairu sozial eta/edo babesturako eta gazteen emantzipaziorako etxebizitzak erosteko eta birgaitzeko dirulaguntzak emateko deialdia**

#### **Lehenengoa. Deialdiaren xedea**

Dirulaguntzaren xedea da toki erakundeei finantzaketa ematea gazteen emantzipaziorako etxebizitzak edo beste higiezin batzuk erosteko eta birgaitzeko, alokairu sozialeko eta/edo babes-tuko araubideko etxebizitzetarako erabil ditzaten (gazteen emantzipaziorako jarduketak ere bai).

Deialdi honen oinarri arautzaileak Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 31ko 12/2026 Foru Dekretuaren bidez onetsi ziren eta 2026ko apirilaren 8an argitaratu ziren ALHAOn, 40. zenbakian.

Dirulaguntzen deialdi honek laguntza ildo hauek ditu:

a) Alokairu sozial eta/edo babesturako etxebizitzak eskuratzea, betiere bitartekaritza publi-koarekin.

b) Etxebizitzak eta/edo zuzkidura bizitokiak birgaitzea, gazteak alokairu erregimenean emantzi-patzen laguntzeko. Zuzkidura bizitoki kasuan, lehendik bizitegi erabilera izan ez duten higiezinak baino ez dira onartuko.

b) Alokairu sozial eta/edo babesturako etxebizitzak birgaitzea, betiere bitartekaritza publi-koarekin.

#### **Bigarrena. Laguntzen onuradunak**

Dirulaguntza hauen onuradun izan daitezke 20.000 biztanletik beherako udalerrietan kokatutako Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeak.

Nolanahi ere, lehen oinarriko b) eta c) lerroetan, erakunde onuradunek birgaituko diren etxe-bizitzak gaineko erabilera edo gozamen eskubideen jabeak edo titularrak izan beharko dute, eta birgaitze jarduketek indarrean dagoen hirigintza legeria bete beharko dute.

Ezingo dira erakunde onuradun izan Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren IV. tituluan aipatzen diren arau hausteengatik zehapena jaso dutenak, ez eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan edo Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onesten duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan jasotako kasuetan daudenak ere.

#### **Hirugarrena. Diruz lagundu daitezkeen jarduerak eta gastuak**

1. Erosteko edo birgaitzeko jarduketak 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera hasita egon beharko dira.

2. Diruz lagundu ahalko dira tipologia hauetako birgaitze jarduera guztiak:

1. Etxebizitzak birgaitze integral kontserbatzailerako esku hartzeak.

a. Fatxaden eta estalkien egitura egokitzeko eta/edo birgaitzeko obrak.

b. Bizigarritasuna egokitzeko eta/edo akaberak egiteko barneko obrak.

2. Etxebizitzak partzialki birgaitzeko edo eraberritzeko esku hartzeak.

a. Fatxaden eta estalkien egitura egokitzeko eta/edo birgaitzeko obrak.

b. Bizigarritasuna egokitzeko eta/edo akaberak egiteko barneko obrak.

Hona sailkapena:

1. mota. Kontserbazioko eta bizigarritasuneko obrak.

Etxebizitza eta haren instalazio pribatiboak kontserbatzeko obrak, eraikuntzaren arloan in-darrean dagoen araudira egokitzeko, edo bizigarritasun baldintzak hobetzeko.

Mota honetan sartzen dira honako hauekin zerikusia duten obrak:

- Berritik egitea edo berritzea elektrizitate instalazio osoak, saneamendua, hornidura, oinarriko hornidurak, espazioen funtzionaltasuna hobetzea, barneko airearen kalitatea hobetzea, hondakinak kudeatzeko sistemak eta abar.

- Barne banaketa aldatzea.

- Konfort akustikoa hobetzea.

- Fatxada, estalkia eta egitura.

- Instalazio hauek berritik egitea edo berritzea: berokuntza, hozketa, aireztapena, ur bero sanitarioaren ekoizpena, argiztapena, energia berriztagarriaren ekoizpena eta autokontsumoa, inguratzaile termikoa eta akustikoa, barneko airearen kalitatea.

- Isolamendu termikoa.

- Kanpoko arotzeria aldatzea.

- Leihoak eta galdarak aldatzea.

2. mota. Irisgarritasuna hobetzeko lanak.

Desgaitasunen bat duten pertsonen eskubideen arloan indarrean dagoen araudian ezarritako irisgarritasun eta diskriminaziorik ezeko baldintzetara egokitzeko obrak, arkitektura oztopoak kentzeko edo zentzumen desgaituentzat egokitzeko, etxebizitzetan barne erreformak eginez edo higiezinaren elementu pribatiboetan jarduketak eginez.

Mota honetan sartzen dira honako hauekin zerikusia duten obrak:

- Komunak egokitzea.

- Etxebizitzaren banaketa egokitzea arkitektura oztopoak kentzeko edo zentzumen desgaituentzat egokitzeko.

3. mota. Etxebizitzaren eta haren instalazio pribatiboen akabera orokorra eraikuntza onaren printzipioetara egokitzeko obrak.

Mota honetan sartuko dira etxebizitzetan barne eraberritzeekin zerikusia duten obrak, hala nola igeltserotza, eskaiola, barne arotzeria, zoruak, iturgintza eta abar, eta elektrizitate, telefonia, berokuntza, gas eta pintura instalazio partzialak.

Ez dira diruz lagundu daitezkeen jardueratzat hartuko dekorazio edo apaindura elementuetan egindako obrak, edo altzariak, armairuak, ispiluak, etxetresna elektrikoak edo antzekoak jartzea edo eraberritzea, etxebizitzari sukalde osoa emateko baino ez direnak izan ezik; halakotzat jotzen dira goiko eta beheko armairuak, gaineko sukaldea, hozkailua, garbigailua, bitrozeramika, harraska eta ke kanpaia. Jarduketa babesgarritzat joko dira, halaber, arau honetan eskatutako gainerako baldintzak betetzen badituzte, elektrizitateko elementu txertagarrietan, fokuetan, downlightetan edo instalazio parekagarrietan egindako obrak, edo horien instalazioa irisgarritasuna hobetzeko jarduketa baten ondorio bada.

Birgaitze lanak etxebizitzetan egingo dira, baldin eta katastroan kalifikazio hori badute. Katastroan etxebizitzaz bestelako erabilera duten eraikinen birgaitze lanen kasuan, jarduketa amaitu ondoren justifikatu egingo da etxebizitza erabilerara aldatu izana.

Toki erakunde onuradunek diruz lagundutako jarduketak behar bezala eta erabat gauzatzeko behar diren izapide guztiak egin behar dituzte eta behar diren baimen guztiak lortu behar dituzte, lanak hasten direnetik behin betiko jaso arte.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen hirugarren xedapen gehigarriaren zazpi-garren apartatuaren arabera, 5.000 biztanle baino gutxiago dituzten toki erakundeetan, urteko aurrekontua gaingitzen duten obra kontratuetan, obraren zati bakoitzari dagozkion proiektu independenteak idatzi ahal izango dira, betiere zati horiek erabilera orokorraren edo zerbitzuaren arabera bereizita erabil badaitezke edo funtsean defini badaitezke. Proiektuak beste kontratu banatan gauzatu ahal izango dira, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 99. eta 101. artikulua aplikatzeari kalterik egin gabe.

3. Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira, eta, beraz, deialdi honen kargura finantzatu ahal izango dira:

Lehen oinarriko a) lerroa:

a. Etxebizitzak edo beste higiezin batzuk erostea, orubeak izan ezik, azken erabilera etxebizitza bada.

b. Notario gastuak eta erregistroan inskribatzeko gastuak, banantze eta/edo elkartzeko gastuak barne.

Gainerako lerroak:

a) Birgaitze proiektuak eta haiek zehazten dituzten Eraikinaren Ikuskapen Teknikoaren proiektuak gauzatzearekin lotutako ordainsari teknikoak, zeinek jasotzen baitituzte, besteak beste, proiektuak idaztea, obra zuzendaritza, segurtasunaren eta osasunaren koordinazioa, azterlan geoteknikoak eta arkeologikoak, eta energia efizientiaren azterlanak eta ziurtagiriak, azken horiek baldin eta birgaitzean mota horretako jarduketak egiten badira.

b) Birgaitzearen egikaritze materiala, urbanizazio jarduketak eta energia efizientiaren arloko jarduketak barne.

c) Birgaitzeko jarduketa hori dela-eta ordaindutako gainerako eskubideak, zeharkako zergak, tasak eta beste prezio publiko batzuk, bai eta balio erantsiaren gaineko zergaren gastua ere, erakunde onuradunek zerga hori jasaten dutenean eta hirugarrenei jasanarazi ezin dietenean.

Diruz lagundu daitezkeen gastuak mugatuko dira azken etxebizitza bakoitzean diruz lagundu daitezkeen jarduketak osatzen dituzten birgaitzeko obra eta esku hartzeekin lotutako partida eta kontzeptuetara.

Birgaitzeko laguntza lerroen kasuan, ez da diruz lagunduko birgaitze jarduketak gauzatzeko beharrezkoa den lurzorua edo, hala badagokio, eraikinen zatiak erosteko gastua.

#### Laugarrena. Dirulaguntzen zenbatekoa

Honako hauek izango dira partidak eta hornidurak:

LERROA	PARTIDA	2026	2027	2028
Etxebizitza eskuratzea	10202. G/920102/76290115 Etxebizitza eskubidearen aldeko Ituna	1.000.000,00		
Etxebizitza zaharberritzea	10202. G/920102/76290115 Etxebizitza eskubidearen aldeko Ituna	2.000.000,00	1.000.000,00	1.000.000,00
Gazteen emantzipazioa	10202. G/920102/76290115 Etxebizitza eskubidearen aldeko Ituna	500.000,00	250.000,00	250.000,00

Kopuru horiei beste 750.000,00 euro gehitu ahal izango zaizkie guztira, baldin eta deialdia ebatzen denean aurrekontuan baliabide egokia eta nahikoa badago. Hala gertatuz gero, dirulaguntzak emateko beste ebazpen bat eman ahal izango da.

Dirulaguntza bakoitzeko gehieneko zenbatekoa honako taula hau aplikatuta aterako da:

ERAKUNDE MOTA	2.000 BIZTANLETIK GORAKO UDALAK	2.000 BIZTANLEKO ETA HORTIK BEHERAKO UDALAK ETA KONTZEJUAK
Dirulaguntzaren gehieneko portzentajea	Ehuneko 50	Ehuneko 75
Erosketarako diruz lagundu daitezkeen gehieneko aurrekontua	800 euro/m <sup>2</sup>	800 euro/m <sup>2</sup>
Birgaitzerako diruz lagundu daitezkeen gehieneko aurrekontua	1.200 euro/m <sup>2</sup>	1.200 euro/m <sup>2</sup>
Erosketarako dirulaguntzaren muga (gehienez, azken unitate bizigarri bakoitzeko)	50.000,00	65.000,00
Birgaitzerako dirulaguntzaren muga (gehienez, azken unitate bizigarri bakoitzeko)	70.000,00	96.000,00
Zuzkidura bizitegirako dirulaguntzaren muga (gehienez, azken unitate bizigarri bakoitzeko)	40.000,00	48.000,00

Aurrekoek gain, hasierako portzentajea honela igoko dira:

- Ehuneko 10 despopulazio arrisku handia duten herriguneentzat (V. eranskina), Arabako despopulazio prozesua aztertzen eta diagnostikatzen duen azterlan demografikoaren arabera.
- Ehuneko 15 despopulazio arrisku oso handia duten herriguneentzat (VI. eranskina), Arabako despopulazio prozesua aztertzen eta diagnostikatzen duen azterlan demografikoaren arabera.
- Ehuneko 10 hobekuntza, efizientzia energetikoaren hobekuntza kontuan hartzen den obra edo eskuraketetarako.

Laugarren oinarrian jasotako dirulaguntzaren ehunekoa handitu ahal izateko, esku hartzeek behar adinako garrantzia izan beharko dute jasangarritasun energetikoaren arloan erregelamendu bidez eskatzen diren gutxieneko kalifikazio irizpideak bete ahal izateko, eta, nolahi ere, gutxienez ehuneko 30 murriztu beharko dituzte CO2 isuriak etxebizitzaren adierazle globalarekin alderatuta, halakorik egonez gero. Aurretiko kalifikaziorik ezean, gutxienez D letrako adierazle global bat lortu beharko du, kontuan hartuta etxebizitzaren eraginkortasun energetikoa ziurtatzeko oinarritzko prozeduraren arloan indarrean dagoen araudian jasotako eraginkortasun energetikoaren ziurtagiriaren adierazle globala.

Deialdiko laguntza lerroetako batean soberakinik izanez gero, beste lerroa handitu ahal izango da ekitaldi berean.

#### **Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea eta modua**

Dirulaguntzen eskaerak aurkezteko epea deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 2026ko ekainaren 15ean amaituko da.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluan xedatutakoa betez, eskaerak berariazko izapidearen bidez aurkeztu behar dira, egoitza elektronikoa (<https://egoitza.araba.eus/eu>).

Baldin eta aurkeztutako eskaerek ez badituzte betetzen adierazitako baldintzak, instrukzio organoak interesdunei hamar eguneko epea emango die hutsa konpon dezaten edo nahitaezko agiriak aurkez ditzaten, eta adieraziko die hala egin ezean artxibatu egingo dela eskaera, uler-tuko baita atzera egin dutela eskaeran.

#### **Seigarrena. Prozeduraren instrukzioa eta aurkeztu beharreko dokumentazioa**

Lurralde Oreka eta Lurralde Antolamenduaren Saileko Toki Administrazioaren eta Erronka Demografikoaren Zerbitzua da espedientea instruitzeko eskumena daukan organoa.

Laguntzak eskuratu nahi badira, dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

Lerro guztiak:

- Eskaera, behar bezala beteta.
- Gizarte Segurantzarekiko kuotak eta zerga betebeharrak egunean dituela adierazten duen eskatzailearen erantzukizunpeko adierazpena.
- Dirulaguntza publikoen onuradun izateko debekurik ez duela adierazten duen eskatzailearen erantzukizunpeko adierazpena.
- Diruz lagundu daitekeen kontzepturako eskatutako eta jasotako laguntzen ziurtagiria, edo, hala badagokio, helburu bererako beste laguntza batzuk jaso edo eskatu ez izanaren ziurtagiria. Ziurtagiri horretan, gainera, onuradunari aurreko ekitaldietan xede eta helburu bererako emandako dirulaguntza guztiak jaso behar dira, nahiz eta proiektu beraren fase edo alderdi desberdinetarakoak izan.
- Udalbatzaren edo auzo batzarraren erabakia, higieztina dirulaguntza eskatu den erabilera-rako 15 urtez mantentzeko konpromisoa adierazten duena.

- Arabako Foru Aldundiko zerbitzu teknikoek edo juridikoek beharrezkotzat jotzen duten beste edozein dokumentazio.

Lehen oinarriko a) letrako erosketa lerroa:

- Higiezinari emango zaion erabilera deskribatzen duen memoria. Bertan, etxebizitzaren azken kopuruaren zenbatespena jasoko da, baita horietako bakoitzean eraikitako metro koadroak ere.

Lehen oinarriko b) eta c) letretako birgaitzeko lerroak:

- Jabetza erregistro egokiaren ohar soila edo eskritura publikoaren fotokopia, laguntzak eskatzen diren etxebizitzaren gaineko jabetza eskubidea, gozamen eskubidea edo beste edozein gozamen titulu frogatzen duena, toki erakundearen inbentarioko inskripzioa barne.

- Udal lizentziaren kopia edo haren eskaera, bai eta sektoreko beste baimen batzuen kopia ere, beharrezkoak badira. Erabilera etxebizitzara aldatzeko izapideak egingo diren eraikinen kasuan, erabilera aldatzeko eskaera, udal lizentziari lotuta. Erakundea udala bada, hirigintza txostena sartu beharko da, udal lizentzia ordeztzen duena.

- Hala badagokio, memoria eta gauzatze aurrekontua, partidaka banatuta.

- Hala badagokio, gauzatze aurreproiektua edo oinarriko proiektua edo, egin beharreko birgaitze motarako proiekturik behar ez bada, memoria, egin beharreko birgaitze jarduketaren xehetasunekin. Edozein kasutan, birgaitze beharreko higiezinaren alde aurreko egoerari buruzko dokumentazio grafikoa aurkeztu beharko da, baita etxebizitzaren azken kopuruaren eta horietako bakoitzean eraikitako metro koadroen xehetasun edo zenbatespen bat ere.

- Halakorik izanez gero, etxebizitzaren eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria, birgaitzea hasi aurretik emana.

**Zazpigarrena. Dirulaguntza emateko prozedura. Balorazio irizpideak, dirulaguntzen banaketa eta zenbatekoa**

1. Diru laguntzak nori eman lehiaketa bidez ebatziko da.

2. Lerro bakoitzean dirulaguntza jaso dezakeen aurkeztutako eskaera bakoitzak puntuazio balio bat izango du, eta, era horretan, deialdi honetan eskatutako jarduketa bakoitza ordenatu ahal izango da, eta dirulaguntzak esleitzeko lehentasun ordena bati jarraituko zaio. Lehentasun ordena hori honako banaketa irizpide objektibo hauetan oinarrituko da:

2.1. Lehen oinarriko a) letrako erosketa lerroa:

a) Proiektuaren heldutasun egoera. 10 puntu emango zaizkie idatzitako oinarriko birgaitze proiektua duten jarduketei, eta 20 puntu gauzatze proiektua idatzita duten jarduketei eta etxebizitza alokatzeko birgaitze lanik egin behar ez den jarduketei. Bi puntuazioek elkar baztertzen dute.

b) Amaitutako azken 5 urteetan udalerrian alokairuaren prezioak izandako igoeraren batez besteko ehunekoa.

$$Y = 20 * \text{API}i / \text{API}m$$

Honela irakurrita:

API: Alokairuaren prezioaren batez besteko igoera udalerrian azken 5 urteetan, 5 ekitaldietako batez besteko single gisa lortua.

i azpiindizea toki erakunde eskatzailea dagoen udalerriarren balioei dagokie, eta m azpiindizea, berriz, onetsitako eskaerak aurkeztu dituzten toki erakundearen udalerrien balio handienari.

Udalerriko alokairuaren batez besteko prezioaren datuak Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Hiri Agenda Saileko Estatistika Organo Bereziak argitaratutako alokairu merkatuaren estatistikaren (AME) urteko txostenetik lortuko dira. Txosten horretan, etxebizitza libre kolektiboen

ohiko alokairu kontratuen estatistika analisia jasotzen da (merkatuko prezioan). Deialdi honetan 2020ko datuak eta 2025eko datuak hartuko dira kontuan udalerriko alokairuaren prezioaren batez besteko igoera ateratzeko.

c) Alokairuko azken unitateak, herrigunearen guztirakoarekin haztatuta.

200 etxebizitza baino gutxiagoko herriguneak:

UNITATE BERRIEN KOPURUA	PUNTUAK
1-2	5
3-4	12
4 baino gehiago	20

201 eta 2000 etxebizitza bitarteko herriguneak:

UNITATE BERRIEN KOPURUA	PUNTUAK
1-4	5
5-8	12
8 baino gehiago	20

2000 etxebizitza baino gehiagoko herriguneak:

UNITATE BERRIEN KOPURUA	PUNTUAK
1-10	5
11-20	12
20 baino gehiago	20

d) Despopulazio arriskuaren maila, Arabako despopulazio prozesua aztertzen eta diagnostikatzen duen azterlan demografikoaren arabera:

Maila oso baxua, 5 puntu (II. eranskina).

Maila baxua, 8 puntu (III. eranskina).

Maila ertaina, 12 puntu (IV. eranskina).

Maila altua, 15 puntu (V. eranskina).

Maila oso altua, 20 puntu (VI. eranskina).

e) Etxebiden izena emanda dauden eta udalerrian erroldatuta dauden etxebizitza eskatzaileak.

5-10 eskatzaile, 5 puntu.

11-50 eskatzaile, 10 puntu.

51-100 eskatzaile, 15 puntu.

100 eskatzaile baino gehiago, 20 puntu.

Datu hori Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Etxebizitzaren Euskal Behatokiak eskaerak aurkezteko epea amaitu aurretik argitaratutako Euskadiko etxebizitza eskariaren azken txostenetik aterako da.

Arestian zehaztutako irizpideak aplikatuko dira eskatutako erosketa edo birgaitzea egiten den herrigune edo udalerriri dagokionez.

2.2. Lehen oinarriko b) eta c) letretako birgaitzeko lerroak:

a) Birgaituko den etxebizitza erosteko dirulaguntza jasota edukitzea Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailaren aurreko deialdi batean, 30 puntu.

b) Proiektuaren heldutasun egoera.5 puntu emango zaizkie idatzitako oinarriko birgaitze proiektua duten jarduketei, eta 10 puntu gauzatze proiektua idatzita duten jarduketei. Bi puntuazioek elkar baztertzen dute.

c) Amaitutako azken 5 urteetan udalerrian alokairuaren prezioak izandako igoeraren batez besteko portzentajea.

$$Y = 10 * \text{APli} / \text{APIm}$$

Honela irakurrita:

API: Alokairuaren prezioaren batez besteko igoera udalerrian azken 5 urteetan, 5 ekitaldie-tako batez besteko sinple gisa lortua.

i azpiindizea toki erakunde eskatzailea dagoen udalerraren balioei dagokie, eta m azpiindi-zea, berriz, onetsitako eskaerak aurkeztu dituzten toki erakundeen udalerrien balio handienari.

Udalerriko alokairuaren batez besteko prezioaren datuak Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Hiri Agenda Saileko Estatistika Organo Bereziak argitaratutako alokairu merkatuaren esta-tistikaren (AME) urteko txostenetik lortuko dira. Txosten horretan, etxebizitza libre kolektiboen ohiko alokairu kontratuen estatistika analisisa jasotzen da (merkatuko prezioan). Deialdi honetan 2020ko datuak eta 2025eko datuak hartuko dira kontuan udalerriko alokairuaren prezioaren batez besteko igoera ateratzeko.

d) Alokairuko azken unitateak, herrigunearen gutzirakoarekin haztatuta.

200 etxebizitza baino gutxiagoko herriguneak:

UNITATE BERRIEN KOPURUA	PUNTUAK
1-2	5
3-4	12
4 baino gehiago	20

201 eta 2000 etxebizitza bitarteko herriguneak:

UNITATE BERRIEN KOPURUA	PUNTUAK
1-4	5
5-8	12
8 baino gehiago	20

2000 etxebizitza baino gehiagoko herriguneak:

UNITATE BERRIEN KOPURUA	PUNTUAK
1-10	5
11-20	12
20 baino gehiago	20

e) Despopulazio arriskuaren maila, Arabako despopulazio prozesua aztertzen eta diagnos-tikatzen duen azterlan demografikoaren arabera:

Maila oso baxua, 2,5 puntu (II. eranskina).

Maila baxua, 4 puntu (III. eranskina).

Maila ertaina, 6 puntu (IV. eranskina).

Maila altua, 7,5 puntu (V. eranskina).

Maila oso altua, 10 puntu (VI. eranskina).

f) Etxebiden izena emanda dauden eta udalerrian erroldatuta dauden etxebizitza eskatzaileak.

5-10 eskatzaile, 5 puntu.

11-50 eskatzaile, 10 puntu.

51-100 eskatzaile, 15 puntu.

100 eskatzaile baino gehiago, 20 puntu.

Datu hori Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Etxebizitzaren Euskal Behatokiak eskaerak aurkezteko epea amaitu aurretik argitaratutako Euskadiko etxebizitza eskariaren azken txostenetik aterako da.

Arestian zehaztutako irizpideak aplikatuko dira eskatutako erosketa edo birgaitzea egiten den herrigune edo udalerriri dagokionez.

3. Puntuetan berdinduta suertatuz gero, ondoz ondoko irizpide hauek aplikatuz hautsiko da berdinketa:

a) Kuadrillako Landa Garapeneko Eskualdeko Planean etxebizitza politika txertatuta egotea.

b) Memorian proiektuaren genero inpaktua aipatzea.

### **Zortzigarrena. Ebazpena**

1. Laguntzak lortutako puntuen arabera banatuko dira deialdiko saldoa agortu arte. Baldin eta berdinketa hausteko irizpideak aplikatu ondoren zenbait erakunde eskatzailek puntuetan berdinduta jarraituz gero, eta aurrekontu baliabideen zenbatekoa nahikoa ez bada berdinduta daudenek eskatutako laguntzak finantzatzeko, zenbatekoak hainbanatu egingo dira saldo erabilgarriaren mugara iritsi arte.

Kasu horretan, balorazio batzorde batek aztertuko ditu eskaerak. Hauek osatuko dute batzordea:

– Toki Administrazioaren eta Erronka Demografikoaren Zerbitzuaren burua edo hark eskuordetzen duen pertsona.

– Toki Administrazioaren eta Administrazio Kudeaketaren Zerbitzuaren burua edo hark eskuordetzen duena.

– Toki Administrazioaren eta Erronka Demografikoaren Zerbitzuko teknikari bat.

Balorazio batzordeak aurkeztutako eskaerak aztertuko ditu oinarrietan eta deialdian ezarritako betekizunen arabera, eta txostena egingo du, non zehaztuko baitu betekizunak zenbateraino bete diren, eta eskaeren arteko lehentasuna ezarriko du, aurreko apartatuan ezarritako irizpide eta baremoen arabera.

Ez da egingo entzunaldiko izapiderik; izan ere, erakunde onuradunek aurkeztutako gertaerak eta agiriak bakarrik hartuko dira kontuan ebazpenean.

2. Eskaera bakoitzaren inguruko izapide guztiak egin ondoren, ebazpena deialdia ALHAOn argitaratzen denetik sei hilabete igaro baino lehen emango da. Epealdi horretan esanbidezko ebazpenik ematen ez bada, esan nahiko du eskaera ezetsi egin dela.

Bat etorri urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. artikularen 1. apartatuaren b) letran xedatutakoarekin, prozeduraren ebazpenak ALHAOn argitaratuko dira eta argitalpenak jakinarazpen ondorioak izango ditu.

Administrazio bideari amaiera emango dion ebazpen horren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegietan, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 8. artikuluan xedatutakoaren arabera, bi hilabeteko epean, argitaratzen den egunetik aurrera.

Zuzenean aurkaratu ezean, nahi izanez gero berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, bat etorri Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin.

Dirulaguntzak emateko ebazpenean jaso beharko da dirulaguntza zein onuraduni eman zaien, eta espresuki adierazi beharko da gainerako eskaerak ezetsi egin direla. Ebazpenean, aldekoa bada, honako hauek adierazi beharko dira: dirulaguntzaren zenbatekoa, ordaintzeko modua, zer baldintzatan ematen den, lana egiteko epea eta adierazitako epean ez egitearen ondorioak.

Erakunde onuradunen batek uko egiten badio (uko hori gehienez ere bi hilabeteko epean egin beharko da, emakida argitaratzen denetik aurrera), dirulaguntza hurrengo eskatzaileei eman ahal izango zaie, aurretik adierazitako lehentasun hurrenkerari jarraituz, deialdiari azkenean esleitutako diru kopuruaren mugaraino.

#### **Bederatzigarrena. Dirulaguntzaren muga**

Ematen diren dirulaguntzen zenbatekoak, beste dirulaguntza edo diru sarrera batzuekin batera, ezin izango du gaingitu erakunde onuradunek egin beharreko birgaitze jarduketaren kostua.

#### **Hamargarrena. Jarduera egitea**

Etxebizitzak edo zuzkidura bitokiak 15 urtez erabili beharko dira horretarako, epe hori lehen errentamendu kontratuaren egunetik zenbatzen hasita.

Toki erakunde onuradunak lankidetzak ekonomikoa aplikatu beharko du obrak eta/edo ekipamendua eskuratu edo gauzatzeko, eta epealdi jakin baten barruan gauzatu beharko du:

Eskuraketan kasuan, 3 hilabete ebazpena argitaratzen denetik.

Proiektuan etxebizitzaren birgaitze integral kontserbatzailerako esku hartzeak egingo badira, 24 hilabete ebazpena argitaratzen denetik.

Proiektuan etxebizitzak partzialki birgaitzeko edo eraberritzeko esku hartzeak egingo badira, 12 hilabete ebazpena argitaratzen denetik.

Lurralde Oreka eta Lurralde Antolamenduaren Sailak, ezohiko kasuetan eta bidezko justifikazioa onartu ondoren, proiektua gauzatzeko epealdia luzatu ahal izango du, interesdunak hasierako epealdia amaitu baino lehen eskabide arrazoitua aurkeztu ondoren. Luzapenaren iraupena kasuan kasuko jarduketaren inguruabarren arabera finkatuko da, honako muga hauek kontuan hartuta:

Lehen oinarriko a) lerroa, 2026ko abenduaren 15era arte.

Lehen oinarriko b) eta c) lerroak, 2028ko azaroaren 15era arte.

Gehieneko epealdi hori gorabehera, luzapenaren iraupena ezin da izan hasierako epealdiaren erdia baino luzeagoa.

#### **Hamaikagarrena. Toki erakunde onuradunaren betebeharrak**

1. Arabako Foru Aldundiak emandako laguntza diruz lagundu daitezkeen gastuak finantzatzeko baino ez da erabiliko.

2. Toki erakunde onuradunak edukiko du jarduerak egiteko behar diren lizentziak eta baimeak eskatzeko ardura, eta jarduera egitean instalazioan eta kudeaketan sortzen diren gorabehera guztien berri eman beharko du.

3. Aldundiak programa honetan diruz lagundutako jarduketaren legezotasuna egiaztatu ahal izango du, eta toki erakunde onuradunak ahalbidetu egin beharko ditu Aldundiak egin nahi dituen kontrolerako eta ikuskaritzarako jarduera guztiak. Kontrola egiten den unean Foru Aldundiaren esku jarri beharko dira dokumentu hauek:

– Obren eta/edo ekipamenduen eta altzarien gastuen eta ordainketen frogagiriak.

– Toki erakundearen eta alokairurako hautatutako pertsonaren arteko harremanaren frogagiriak.

4. Alokairu sozial edo babestuaren kontratua instalazioak amaitu eta osorik ekipatzen direnetik 6 hilabete pasatu baino lehen sinatu behar da.

Alokairu kontratuak formalizatzeko luzapenak eman ahal izango dira, arrazoiak frogatuz gero:

a) Lehen oinarriko a) lerroan, etxebizitza birgaitu behar ez bada, luzapenen epemuga 2027ko abenduaren 31 izango da.

b) Lehen oinarriko a) lerroan, etxebizitza birgaitu behar bada alokatu ahal izateko, obraren proiektua idazteko lizitazioa 2027ko urriaren 30 baino lehen egin beharko da. Halako kasuetan, alokairu kontratua sinatzeko epealdia 2030eko abenduaren 31ra arte luzatu ahal izango da.

c) Lehen oinarriko b) eta c) birgaitze lerroetan, 2029ko abenduaren 31ra arte.

#### **Hamabigarrena. Dirulaguntzak ordaintzea eta justifikatzea**

1. Ordainketak izendunak izango dira toki erakunde onuradun bakoitzarentzat.

2. Dirulaguntzak honela ordaindu eta justifikatuko dira:

a) Lehen oinarriko a) letrako erosketa lerroa:

1. Guztirako zenbatekoaren ehuneko 80 dirulaguntzak emateko ebazpena eman eta toki erakunde onuradunak salerosketa kontratu pribatua edo eskritura aurkeztu ondoren.

2. Gainerako ehuneko 20 gastu guztia justifikatu ondoren (2026ko abenduaren 31 baino lehen).

b) Lehen oinarriko b) eta c) letretako birgaitzeko lerroak:

